

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

AEK

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-05-12

1	Izena	Euskaraz Koop. Elkartea - Ahize - AEK
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Helduen euskalduntzea Hizkuntz-normalkuntza Erabilera jarduerak Itzulpen zerbitzua Sustapena
4	Kontakturako helbidea edo telefonoa	mertxe-m@aekeus ahize@aekeus +34 629466023
5	Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...)	www.aekeus www.korrika.eus Facebook: https://www.facebook.com/aekeuskalakari/ Twitter: https://twitter.com/euskalakariaek

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIKAPENA

1	Praktikaren azalpena	AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea): euskararen berreskurapena eta Euskal Herriaren berreuskalduntzea xede duen erakundea
2	Praktikaren azalpenaren laburpena	<p>AEK euskararen berreskurapena eta Euskal Herriaren berreuskalduntzea xede duen erakundea da. Helburu hori lortzeko helduen euskalduntze-alfabetatze alorra jorratzen du, hala nola, ikerkuntza, material didaktikoen sorkuntza, irakasleak prestatzeko ikastaroak, kultur ekitaldien antolakuntza eta euskararen aldeko kontzientzia kanpainak.</p> <p>AEKk hiru arlotan eragiten du:</p> <p>Ezagutzan: Egun, 100 euskaltegi eta gau-eskola baino gehiago ditu, eta 2014-2015 ikasturtean XXX ikasle aritu ziren euskaltegietan. Eskaintzari dagokionez, Europako Marko Curricularrak markatzen dituen maila guztiak eskaintzen ditu. Horretarako, taldeentzako ikastaroak, on-line ikastaroak edota barnetegiak antolatzen ditu.</p> <p>Erabilera: Bi arlotan eragiten du. Batetik, Enpresan, administrazio zein erakundeetan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, eta Aholkularitzan, metodologia parte-hartzailean eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen da hizkuntzaren erabilera areagotu eta era</p>

		<p>sistemiko batean kudeatzeko prozesua abian jartzeko. Bestetik, batzuetan zaila izaten da euskaltegian ikasitakoa kalean erabiltzea. Horretaz jabetuta, euskaltegitik kanpo euskaraz hitz egiteko mintzapraktika egitasmoak lantzen ditu.</p> <p>Sustapena: Bi urtean behin euskararen aldeko ekimen garrantzitsuena den KORRIKA antolatzen du.</p>
3	Aurrekariak (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	Erakunde honen hastapenak 1965ean aurkitu daitezke. Orduan euskaldunak zirenei beren hizkuntzan idazten eta irakurtzen irakatsi beharra zegoen. Horretaz gain, euskararik ez zekiten euskal herritan multzo handiari euskara irakastearen beharra agerian geratu zen. Denbora igaro ahala helduen euskalduntzea bilakatuko zen AEKren zeregin funtzezkona
4	Helburuak	Hizkuntza komunikaziorako tresna den neurrian pertsonen artean jardun eta bizitzeko tresna ere bada. Horren ondorioz, hizkuntza jakiteak ezinbestean dakar jende artean hizkuntza hori erabiltzeko gai izatea. Beraz, AEK-n nahi du bertara hurbiltzen den orok euskara bere bizitzako arlo eta une desberdinetan erabiltzen ikastea, eta horretan oinarritzen da bere metodologia. Ahal denik eta praktikara lotuen, eta, jakina, betiere ahalik eta modu atseginean
5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	Helduen euskalduntzearen esparru eta eragina jendarte osora zabaldu dugu: alderdi politiko, sindikatu, instituzio, kultur elkarte, kirol elkarte, norbanako...
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	Aurretik aipaturiko guztiak laguntzaileak dira: alderdi, sindikatu, instituzio, kultur elkarte, kirol elkarte, norbanako...
7	Inplementazio-epaia	1965en sortutako erakundea da eta bere helburua beteko da euskararen herrian arlo guztietan euskaraz bizi ahal denean

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barne-kanpo hedapena...)	Aurretik esan bezala, hedapena lurraldeari dagokionez erabatekoa da, Euskal Herriko lurralde guztiak aintzat hartzen dituelako
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Giza-baliabideen inbertsioan itzela da. Egun, AEKK 500 langile baino gehiago ditu
10	Lortutako emaitzak	Emaitzak askotarikoak dira. Hala ere, Hizkuntza Politika Sailburuordetzak egindako ikerketa baten arabera, azken hiru hamarkadetan, euskarak 300.000 hitzun baino gehiago irabazi ditu. Horietako herena Helduen Euskalduntze arloari esker izan da. Jakina da AEK ez dela bakarria arlo horretan, baina zalantza barik itzela da egindako ekarpena
11	Dokumentazioa erreferentziako materiala	AEKK garatzen dituen proiektu eta ekimenen gaineko informazioa www.aek.eus orrialdean ikusgai

12 Aurkezpen bideoa

Berez, AEK-k ez du aurkezpen bideorik, baina, lan desberdinen gaineko ideia bat egiteko, jarraian bideo bat baino gehiago:

- Nahi duzun guztia esateko spota:
<https://www.youtube.com/watch?v=YeJN547uiWI>
- AEK jendea: <https://www.youtube.com/watch?v=wSyDGJr5XeE>
- Ikasi eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko erreportajea:
https://www.youtube.com/watch?v=yHyoFA_tDFA

